


# 6- IMPERIALISMOAREN GARAIA

## 1. IMPERIALISMOA ETA ARRAZOIAK

### 1.1. EUROPA MENDERATZAILEA

- Industria Iraultzaren ondorioz, Europako herrialde nagusietako ekonomia eraldatu.



- Nagusitasun militarra baliatuz, Europak mundua menderatzeari ekin zion. Afrikako eta Asiako lurraldeak okupatu zituzten, eta **inperio kolonialak** sortu.

### 1.2. KOLONIALISMOAREN ARRAZOIAK

#### a) Faktore **ekonomikoak**:

- Merkatu berrien beharra, ekoizpenaren soberakina saltzeko.
- Lehengaiak (ikatz, burdina...) ahalik eta prezio onenean erostea.
- Kapital-soberakinak beste nonbait inbertitzea.

#### b) Faktore **demografikoak**:

- Hazkunde demografiko ikusgarria Europan. Milaka europarrek emigratu zuten, bizi-baldintzak eta lan-baldintzak hobetzeko.

#### c) Faktore **politikoak**:

- Europako mugak egonkorak ziren. Europako herrialdeek Europatik kanpoko lurraldeetara hedatu behar.
- Interes ekonomikoko eta estrategikoko eremuak (kaiak, itsasarteak...) kontrolatzeko lehia.

#### d) Faktore **ideologikoak**:

- Europak beste herrialdeak zibilizatzeko betebeharra: herrialde horiek hezi behar, osasun arloan zaindu, bakea ezarri...
- Zuriak gizadiari gailentzeko zilegitasuna.

## 2. KOLONIEN KONKISTA, ANTOLAKUNTZA ETA USTIAPENA

### 2.1. ESPLORAZIOA ETA KONKISTA

- XIX. mendearen erdialdean, Afrikako, Asiako eta ozeanoetako barnealdea ia ezezagunak.

- Europako herrialdeek hainbat **bidaia zientifiko eta esplorazio geografiko** egin.
  - Lehen espedizioak britainiarrek eta frantsesek antolatu.
  - Esploratzaile ezagunak: Livingstone eta Stanley.
- Lurralde berriak azkar eta erraz konkistatu.
  - Nagusitasun militarra eta teknikoa.
  - Europarrak tribuen eta etnien arteko barne-lehiez baliatu.

## 2.2. KOLONIEN ANTOLAKUNTZA

### 2.2.1. Ustiapenerako koloniak

- **Okupazio-politika:** gobernadore batek, agintari militarrek eta funtzionario ugari administrazioa eta ordena mantentzen zuten.
- **Ustiapen ekonomia:**
  - Kolonizatzaileek lurrak bereganatzen zituzten: sail handiak ereiteko (kafea, azukrea...) eta meategiak ustiatzeko (urra, ikatza...).
  - Jabeak kolono zuriak eta egoitza nagusia Europan zuten enpresa handiak ziren. Langileak bertakoak, eskulana oso merkea.
  - Koloniek ezin zuten beste herrialdeekin traturik egin, ustiapena metropoliari bakarrik zegokion.

### 2.2.2. Jendeztatzeko koloniak

- Zuriak zenbait kolonietara emigratu eta behin betiko gelditu (klima, aberastasunak...).
- Metropoliak kolonien **barne-gobernuak** halako **autonomia** izatea onartzen zuen.
- Adibideak:
  - Britainiar Inperioaren mendeko koloniak domeinuak ziren (Kanada, Australia...).
  - Frantziak lurralde nazionaltzat hartzen zituen, itsasoz haraindiko probintziatzat (Aljeria).

### 2.2.3. Protektoratuak

- Europarrek okupatu ondoren, **indigenek** jarraitzen zuten **gobernuan** eta administrazioa bertakoa zen.
- **Metropoliak gobernu paraleloa** sortu eta, praktikan, tokikoari gailendu.
- Adibideak:
  - Maroko, Frantziaren eta Espainiaren artean banatutako erresuma.
  - Egipto, britainiarren protektoratua (Suezko kanala pasabide estrategikoa zen).

### 3. MUNDUAREN BANAKETA

#### 3.1. AFRIKA ETA ASIAREN OKUPAZIOA

##### 3.1.1. Afrikaren banaketa

- 1870etik aurrera, Afrika kolonizatzen hasi. Kolonizazio azkarra, ia kontinente osoa mendean hartu.
- **Kolonizatzaileak:**
  - Britainiarrek eta frantsesek aurre hartu zuten. Inperio jarraituak sortzeko asmoa: Britainia Handiak, iparraldetik hegoaldera; Frantziak, mendebaldetik ekialdera.
  - Belgikak kolonia handi bat eskuratu zuen Kongo ibaian gora.
  - Alemanak eta italiarrak berandu heldu ziren.
- **Berlingo Biltzarra:** arauak eta herrialde bakoitzaren mendeko eskualdeak finkatu zituzten; herrialde inperialistek Afrika banatu zuten.

##### 3.1.2. Asiaren banaketa

- Mendebaldeko Europako herrialde indartsuek eta hedatu nahi zuten zenbait herrialdek (Errusia, AEB, Japonia) okupatu zuten.
- **Txina** oso merkatu esanguratsua:
  - Herrialde kolonialista guztiek bereganatu nahi.
  - Opioaren gerren bidez, merkataritza ireki eta Mendebaldeko herrialdeek hango aberastasunak ustiatzea lortu.
  - Hainbat errebolta sozial atzerritarren aurka, esaterako, boxerena.

#### 3.2. INPERIO KOLONIALAK

##### 3.2.1. Britainiar inperioa

- XIX. mendearen amaieran, munduko **inperio kolonialik handiena**.
- Helburua: **itsasbideak kontrolatzea**. Baseak sortu Atlantikoan, Indiako Ozeanoan, Ozeano Barean eta Mediterraneoan.
- Kolonia nagusia: **India**. Biztanleria oso handia; India oso garrantzitsua bilakatu zen Britainia Handiaren produktuak merkaturatu eta lehengai merkeak eskuratzeko (kotoia, tea...).

##### 3.2.2. Frantses inperioa

- **Bigarren inperio kolonial** nagusia.
- Hainbat lekutan kokatu, Ipar Afrikan eta Asiako hego-ekialdean (Indotxina) bereziki.

### 3.2.3. Europako beste inperio batzuk

- Zenbait herrialdek kolonia handiak izan zituzten, esaterako: Errusiak, Herbehereek eta Portugalek.
- Neurri txikiago batean: Alemaniak, Italiak, Belgikak eta Espainiak.

### 3.2.4. Europatik kanpoko inperio kolonialak

- **Estatu Batuak** bi norabidetan hedatu: Ozeano Barerantz eta Kariberantz. Panamako kanalaren eraikuntza.
- **Japoniak** Korea eta Taiwan okupatu zituen.

## 4. KOLONIZAZIOEN ONDORIOAK

### 4.1. KOLONIETAN EUROPAKO AURRERAKUNTZAK APLIKATZEA

- **Hainbat aurrerakuntza:**
  - Azpiegiturak hobetu: portuak, errepideak, trenbideak, telefono-lineak...
  - Lantzeko lur gehiago prestatu, eta industriak sortu.
  - Higiene-neurriak ezarri eta ospitale berriak egin. Ondorioz, izurrien eraginak behera egin.
- **Ondorioak:**
  - Heriotza-tasak nabarmen behera egin eta biztanleria hazi.
  - Kolonia askotan (Afrikakoetan bereziki) biztanleriaren eta baliabideen oreka eten egin zen; elikadura eskasa arazo kroniko bihurtu zen.

### 4.2. ALDAKETA EKONOMIKOAK

- Kolonizatzaileek beraien interes ekonomikoak ezarri zituzten, kolonietako aristokraziaren eta burgesiaren laguntzaz.
- Diruan eta **merkatuan oinarritutako ekonomia** ezarri zuten.
- Lur asko kolonizatzaileen esku:
  - Metropoliak ekoiztu nahi zituen produktuen **sail handiak** erain: kakaoa, kafea, kotoia...
  - Bertakoek lurra landu, eta elikagaiak erosi behar. Bizi-baldintza txarrak.
- Tokiko **artisautzaren** gainbehera; metropolitik produktu merke eta ugari inportatzen zituzten.

### 4.3. GIZARTE-ALDAKETAK

- **Gizartearen egitura** aldatu: eredu berriek tribuen bizimodua eta gizartearen baitako hierarkia tradizionala (zaharren garrantzia, familien egitura...) eraldatu.
- Gizarte koloniala **bereizketa** handiaren adierazgarri:
  - Metropolitiko funtzionarioak eta kolonoak luxuzko etxebizitzetan bizi.
  - Indigenak herrixketan, miseria gorrian.

### 4.4. KULTURA-ALDAKETAK

- Europarrek **eskolak** egin zituzten:
  - Metropolitiko hizkuntza, kultura eta ohiturak irakatsi nagusiki.
  - Kultura indigenek nortasuna galdu; **akulturazio-fenomenoa** handiagoa Afrikan, Asian baino.
- Indigenek **misiolarien laguntza** izan zuten; trukean, misiolariek **kristautasuna** eta Mendebaldeko sineskerak ezarri.

## 5. LEHEN MUNDU GERRAREN HASTAPENAK

### 5.1. ARRAZOIAK

- Lehen Mundu Gerra: **1914 eta 1918 artean.**
- **Arrazoiak:** XIX. mendearen amaieran sortuak.
  - a) Herrialde kolonizatzaileen arteko lehia:**
    - Alemaniak kolonia gutxi zituen; Frantziari eta Britainia Handiari gailendu nahi izan zitzairen.
    - Haien arteko gatazkak Marokon gauzatu ziren nagusiki.
  - b) Asaldura nazionalista:**
    - Alemania eta Frantzia etsai ziren.
      - Frantziak Prusiaren aurka gerra galdu zuenean, Frantziak Alsazia eta Lorrena eskualdeak galdu zituen Alemaniaren mesedetan.
      - Bi herrialdeek Europan nagusi izan nahi zuten.
    - Alemania eta Britainia Handiaren arteko lehia; itsasbideak eta nazioarteko merkataritza kontrolatu nahi zituzten.
  - c) Balkanetako gatazka:**
    - **Turkiar Inperioaren** mendeko zenbait herrik gerrak sustatu eta independentzia lortu zuten: Greziak, Serbiak, Errumaniak...


- **Austria-Hungariako Inperioa** nazio askoz osatutako inperioa zen.
  - Germaniar gutxiengoa zen nagusi, eta mendean nazionalitate ugaritako herritarrak zituen, besteak beste: serbiarrak, kroaziarrak, hungariarrak, txekiarrak...
  - Eskualdean nagusi izan nahi zuen, eta Serbiari egozten zion Inperioan bizi ziren serbiarren protestak babestea.
- **Errusia:**
  - Eslaviar herri guztiak babestu nahi zituen (**paneslavismoa**), esaterako, Serbia.
  - Eskualdean indar gehiago lortu nahi zuen; Bosforo eta Dardaneloak okupatu nahi zituen, ontziak Mediterraneora eramateko.
  - Austriak Bosnia-Herzegovina okupatu zuenean, Errusiak argi utzi zuen gatazka armatua piztuz gero, honi aurre egiteko prest zegoela.

## 5.2. ARMAMENTU-LEHIA ETA ALIANTZAK

- Herrialde nagusien arteko egonezinaren ondorioz, estatuek dirutza handia bideratu zuten armak fabrikatu, gerrarako ontziak egin eta tropak prestatzeko.
- Herrialde indartsuenen artean aliantzak sinatu ziren:
  - **Aliantza Hirukoitza:** Alemania, Austria-Hungaria eta Italia.
  - **Entente Hirukoitza:** Frantzia, Errusia eta Britainia Handia.

## 5.3. GERRAREN LEHERKETA

- **1914ko ekainaren 28an**, Sarajevon (Bosnian):
  - Frantzisko Fernando Austria-Hungariako Inperioaren oinordekoaren hilketa.
  - Atentatua serbiar nazionalistekin harremanetan zegoen bosniar ikasle batek egin zuen (Bosnia, austriarrek okupatzen zuten).
- Gertaera horren **ondorioak**:



## 6. GERRA HANDIA

### 6.1. ETAPAK

#### 6.1.1. Mugimenduen gerra

Alemaniarren estrategia: Frantziaren aurka eraso jo, azkar irabazi eta, gero, Errusiako fronteari ekin.

- Hasieran taktika hori ondo atera zitzairen, baina Frantziako eta Ingalaterrako armadek berrantolatzea lortu eta Alemaniako armada geldiarazi zuten.
- Ekialdeko frontean, hasieran, Alemaniak azkar egin zuen aurrera. Hala ere, errusiarrek erreakzionatu zuten eta Austriar Inperioaren atarira heldu ziren.

#### 6.1.2. Lubakietako gerra

- Lehenengo mugimenduen ondoren, **fronteak gelditu** egin ziren.
  - Mendebaldeko frontean **lubakiak** egin zituzten.
  - Aurrera egiteko zailtasun handiak; milaka soldadu hil ziren.
- **Aliatu berriak** behar zituzten, gerrara soldadu gehiago bidaltzeko.
  - **Italiak** aliatuen (Frantzia eta Britainia Handia) alde esku hartu zuten.
  - **Bulgariak** eta **Turkiar Inperioak** erdialdeko herrialdeen alde.
- 1916an, **Verdugo Gudua**:
  - Alemaniarrak eraso egin zuten Frantziako frontea hausteko.
  - Emaitza: herrialde aliatuetako milioi bat lagun eta 800000 alemaniar hil ziren.

#### 6.1.3. 1917ko krisia eta gerraren amaiera

- Bi gertaera garrantzitsu gerraren bilakaerarako:
  - **Errusian** boltxebikeen iraultzak arrakasta izan zuen. Barne-arazoak konpontzea erabaki zuten. Horrela, Alemaniarekin bakea sinatu eta gerra utzi zuten: **Brest-Litovskeko Itunak**.
  - **AEBek** gerran esku hartzea erabaki zuten; Alemaniako urpeko batek Lusitania transatlantikoa hondoratu baitzuen.
- **1918an, gerraren amaiera**:
  - **Ekialdeko frontean**, britainiarrek, frantsesek eta italiarrek Austria eta haren aliatuak garaitu zituzten. Armistizioa sinatu zuten.
  - **Mendebaldeko frontean**, alemaniarrek garaitu zituzten. Armistizioa sinatu zuten.

## 6.2. GERRA ATZEALDEAN

Gerra Handia **gatazka mota berri bat** izan zen:

- **Herritar guztiek**, zibilek eta militarrek, esku hartu zuten.
  - Armada nazionala: militar izateko adineko gizonezko guztiak errekrutatuak.
  - Emakumeak lanean hasi ziren, gerrara joandako gizonak ordezkatzeko.
- **Baliabide asko:**
  - Industriaren birmoldaketa, armak fabrikatzeko.
  - Maileguak eskatu zituzten.
  - Iritzi publikoa mobilizatu eta etsaien aurka jarri zuten.
- **Ondorioak:** hildakoen eta elbarrien kopurua eta suntsiketa lazgarria.

## 7. BAKEAREN ANTOLAKUNTZA

- 1919an, bake-baldintzak ezartzeko biltzarra egin zuten Parisen.
- Irabazi zuten lau herrialde nagusiek hartu zituzten erabakiak.

### 7.1. VERSAILLESKO ITUNA

- Garaileek **baldintza gogorrak** ezarri zituzten:
  - Alemania jo zuten gatazka lehertzearen errudun bakartzat, eta kalte-ordain handiak ematera behartu.
  - Alemaniako armada ia guztiz desegin.
  - Koloniak kendu; Britainia Handia eta Frantziaren artean banatu zituzten.
  - Alemaniak hainbat lurralde galdu: Alsazia eta Lorrenako lurraldeak Frantziari itzuli; Schleswig, Danimarkari; Prusiaren zati bat Poloniari...
- Alemaniak inposiziotzat eta bake iraingarritzat hartu zuen Versaillesko Ituna. Ondorioa: Alemanian **nazionalismoa eta mendeku hartzeko gogoia suspertu** egin ziren.

### 7.2. EUROPAKO MAPA BERRIA

- Gainerako galtzaileak zigortzeko, beste hainbat itun sinatu zituzten.
- **Wilson AEBetako presidentearen aldarrikapena:** nazio bakoitzak estatu independente bat sortzeko eskubidea zuela, hizkuntzan, ohituretan eta historian oinarrituta.



- **Europako inperio zaharren zatiketa:**
  - **Errusiar Inperioak** Baltikoko ia kostalde osoa galdu; lurralde handiak utzi Polonia berriari.
  - **Turkiar Inperioa** ia erabat desagertu; Turkia besterik ez.
  - **Austria-Hungariako Inperioa** desegin:
    - Estatu berriak sortu: Txekoslovakia, Hungaria eta Austria.
    - Serbia, estatu berri baten buru bihurtu: Jugoslavia.
- Zenbait lurralde birmoldatzearen helburua: **Errusia iraultzailea bakartzea**. Nola:
  - Polonia eta Errumania handi bana sortu, Errusiari aurre egiten ez uzteko.
  - Hainbat nazionalitatetako herritarrak bildu behar izan zituzten.

### 7.3. NAZIOEN SOZIJETATEA

- Erakunde berri honen **helburuak**:
  - Bakea ziurtatu.
  - Nazioarteko lankidetzaz sustatu.
  - Itunak betetzea zaindu.
  - Gatazkak diplomaziaren bitartez konpondu.
- **Bi organismo**:
  - Biltzarra: estatu kide guztiek osatzen zuten.
  - Kontseilua: herrialde garaileek osatzen zuten.
- **Erakundearen porrota**. Arrazoiak:
  - Garai hartan suntsiketa, miseria, zorrak... ziren nagusi.
  - AEB eta bakearen emaitzekin ados ez zeuden herrialde asko (Alemania, Italia) ez ziren erakundean sartu. Horrela, Sozietatea garaileen erakunde bihurtu zen.